

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 2013/2014 ikasturteko helduentzako euskara-ikastaroetan matrikulatzeko epea zabaldu da

*Nafarroako Gobernuak ikastaro estentsiboak, trinkoak, autoikaskuntzakoak nahiz hitz egiteko ikastaroak eskaintzen ditu maila guztietan*

Lunes, 03 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak, 2013-2014 ikasturteari begira, datorren ostirala arte, ekainak 7, zabaldu du [helduentzako euskara-ikastaro](#)etan matrikulatzeko epea. Ikastarook Euskarabidearen bidez emango ditu Uharteko Zubiarte euskaltegian eta Iruñeko Gizarte Egokitzapeneko BHIkoan.

Ikastaro estentsiboak (irailetik ekainera), trinkoak (20 egunekoak, egunean 6 ordu emanez) eta autoikaskuntzakoak (4 ordu online, hitz egiteko 2 ordu baino gehiago astean) eskaintzen dira maila guztietan (A1, A2, B1, B2 eta C1). Berariazko ikastaroak ere eskaintzen dira goi-maila egiaztatzeko (C1 edo EGA), txandakako langileentzat (maila guztietan), eskola-adineko haurrak dituzten gurasoentzat (A1, A2 eta B1 mailak) eta maila aurreratuko elkarrizketa-eskolak (B2).

Matrikula aste honetan egin beharko da Zubiarte euskaltegian (Zubiarte kalea, 13, Huarte), Euskarabidean, Donibane BHIko eraikinean kokatua (Biurdana kalea, 1, Iruña), eta Gizarte Egokitzapeneko BHIkoan (Bartolome de Carranza kalea, 5, Iruña).

Tasak ikasleen ikastaro eta antzinatasunaren arabera aldatzen dira. Adibidez, astean 10 orduko ikastaro estentsibo batek 140,30 euro balio du ikasle berrien kasuan eta 114,90 euro berriak ez direnentzat (azken bi ikastaroetan noizbait matrikulatuta izan direnak). Bestalde, autoikaskuntzako ikastaro batek 86,70 euro balio du ikasle berrien kasuan eta 61,30 euro berriak ez direnentzat.

Maila orokorreko familia ugarietako kideek % 50eko beherapena izango dute matrikulan eta maila berezikoek ez dute ordaindu beharrik izango.

Ikasle berriek, izena eman aurretik, mailaren beste proba egin beharko dute, hasierako mailan matrikulatzen ez badira behintzat (A1).